

rouge eléak aurkezten du

ZUEK

zine-kontzertua





Super 8 bideoak eta musika, zine kontzertu teatroa

Zuek / 2015erako SORKUNTZA

Publiko guztientzat

45 pertsona gehienez

egunean hainbat aldiz jokatzeko da

Rouge Elea konpainia - rougelea@yahoo.fr

06 61 69 46 87 - <http://www.rougelea.com>



INTERPRETAZIOA, IDAZKETA ETA SORKUNTZA Ander Fernandez - Corine Cella

TESTUAK Ander Fernandez_ Oier Guillan

BIDEOGINTZA Zazpit'erdi (Pello Gutierrez_David Aguilar)

ESZENOGRAFIA Laurent Gauthier, Idoia Beratarbide, Alvaro Ledesma

JANTZIAK Marodi (Idoia Beratarbide_Maria de Bernardo)

Dirulaguntzak : Rouge Eléa, MUGALARIAK programa_ DONOSTIA 2016, EKE, Aquitaine Active

Egonaldiak: Mendi Zolan (Hendaia), Kultur Leioa (Leioa), Baxe Nafarroako Herri Antzokia (Donazarre), Errenteria Hiria kulturgunea.

Sinopsia

Gure arbasoek merezi duten omenaldia, gure gurasoeri gorazarre... familia memorian egindako zoom- a.

Feriante karpa baten sarreran zera dion afixa aurkitu duzu "Cinema of memories". Zinema itinerante batetan sartu zara orduan.

Kontzertu, zinema eta objektu teatroaren artean kokatzen den ikuskaria da *Zuek*. Bere unibertso horretan jasoko gaituen pertsonaia musikari eta soinu sortzaile bat da, proiektatzen diren filmeetako heroi anonimoentzat konpositore.

Elementuen alkimiaz eratutako munduan barrena gonbidatu zaitu gizon horrek, "pasen y vean" esan dizu, etor eta deskubritu, begira, entzun eta bizi, "welcome to the cinema of memories!". Zu izan zitezke super 8 irudi horien protagonista eta nahigabe zu ere oroitzen jarri zara. Pixkanaka ordea, pertsonaia hori gu baino lehenago bertan murgildu zitzaigula deskubrituko duzu.

<http://vimeo.com/92072951>



Soinuak eta doinuak

Zinema eta soinu ehuntze tailer honetan "Petit cirque de Calder"-eko izpirituak ikututako musikariak soinuak sortu eta grabatzera jotzen du.

Konturatu gabe haren zineman itsasoratzen gaitu, soinuetan lehendabizi, irudietan ondoren. Publikoak oinak sartzan ditu pixkanaka unibertso musikalean, bozgorailu ezberdinetatik heltzen zaizkion musika bakan, gozo eta hautsietan. Konposizioak irudien zentzu berean doaz batzuetan, kontrako norantzan besteetan, ontziari mugimendua emanez.

Gitarra eta ahotsez sortuko dira batipat, baina baita bestelako soinu giroak sortuko dituzten tresnez ere. Kantuak tonu ezberdinetan emango dira, tonu melankoliko batetan batzuk, baita tonu komikoan edo melodia finez, kantu biluziak maiz. Zirko zaharretako musiketara hartzen dute ispirazioa kantuek. Hitzek familia ekartzen digute gogora, trasmisioa eta memoria.

Elementu hauek harilkatuz musikari aktoreak elkar gurutzatzen diren bideak erakusten dizkigu, gure memoriarekin nahasten den erlazio batetara eramaten gaitu. Gutako bakoitzaren bizipenekin sortzen diren txinpartak bilatzen ditu ikuskizunak.



Super 8 filmez betetako kutxa bat

Super 8 formatuko filmaz betetako kutxa bat aurkitu eta filma horiek ikustetik sortzen da "Zuek" proiektua. Familia baten aro bat islatzen dute filme horiek, 1970. hamarkadakoak. Irudi horiek grabatu zituena ez zen zinemagilea, bertan agertzen direnak ez dira aktoreak baina hala ere, balio estetiko handia duten irudiak aurkitu ditugu bertan. Super 8 formatuaren xarma dute eta irudi mutuak dira. Filmeetan oso presente aurkitu dugun gai bat da eszenan jorratzen dena: belaunaldi artekotatasuna.

Memorian murgiltzea

Pixkanaka pertsonaiaren bidaiaren testigu izango gara, haren barne mundua islatzen duten bestelako bideo sorkuntza eta soinu giroen bidez. Bestelako bideo horiek objektuen gainean proiektatzen dira eta sorpresaz agertuko zaizkigu ikuskizunean zehar.

Ausaz topatutako mundu horretan nola murgiltzen ari zaigun deskubrituko dugu pixkanaka.



Konpainia

Konpainiaren ikuskizunak musika, dantza eta objektuen uztarketatik sortzen dira. Diziplina arteko lurraldeak ikertzen ditu kartografia propio baten bila eta izateari buruz galdekatzeko bere burua.

2003an Corine Cella- k sortu zuen konpainia, zirku formakuntza duen dantzaria. Lehenik **Calao** ikuskizuna sortu zuen, egun oraindik zuhaitzetatik zintzilik ematen duen ikuskizuna delarik. 2007an Ander Fernandez ezagutzen du, sortzaile eta musikari euskalduna, eta berarekin konpartitu ditu hurren etorri diren ikuskizunak; **à la poursuite du vent** (2007, emakumeen ikuspegitik emandako abenturari buruzkoa), **Biutz** (2012, mugen inguruan hausnartzen duen bideo, zirku- dantza eta musika sorkuntza) eta **Ronde-Bi ahizpa** (2013, anaitasunari buruzko ikuskizuna).

Gizasemearen sustrai eta adarrak, hala nola hegoak non kokatzen diren, zein azal duten ulertzen saiatzen da konpainia bere lanen bidez. Horretarako eskura dituen tresna guztiak ikertu nahi ditu, dela gorputza, hitza, musika eta batez ere begirada. Ingurura begiratu eta inguruari begirada itzuli.



ZUEK fitxa teknikoa - zine kontzertu teatroa

Iraupena: 35 minutu

Muntai denbora: 3 ordu

Desmuntai: 2 ordu

Publiko muga: 45 pertsona

Ekipoa: Bi artista.

Egunean gehienez 3 pase, haien artean 2 orduko tartea gutxienez (adibidez, lehenengoa 16etan eginez gero, bigarrena gutxienez 18etan izan beharko litzateke)

Espazio eszenikoa

- Kalean: 8x8 metroko espazio erabat laua. Hobe da belardia ez bada.
- Soinu kutsadura gutxiko leku lasaia. Karpa baten barruan jokatzeko da (ikus argazkia).
- Lekua, bertaraino furgonetarekin iristeko modukoa izan behar da.



- Karparen neurriak: 6 x 7 x 3.10 m + lurrari eusteko zintek hartzen dutena. Piketak edo pixuak izan daitezke. Pixuak behar izan ezker 25Kg-ko 8 aurreikusitako.
- Barruko espaziotan ere imagina daiteke, horretarako 8x9 metroko espazio hutsa beharko genuke. Eszenatoki baten gainean montatu liteke baita ere.

Argindar beharrak

220V / 16A- ko argindar hornidura. Muntaia hasten den momentu beretik behar dugu argindarra, karpa puzgarria baita.

Seguridade beharrak

Karpa eta eszenografiak M2 ziurtagiria dute eta publikoa jasotzeko arauak betetzen dituzte.

Hauek antolatzaileak hornitu beharrekoak:

- Bi estintore (1 H₂O eta 1 CO₂)
- Karparen inguruan argiztapena, kale argiztapena egongo ez balitz.

Pertsona beharrak

Muntaia eta desmuntai uneetarako gutxienez pertsona baten laguntza behar dugu. Karpa gauez kalean utzi behar izanez gero berau zaintzeko pertsona bat behar dugu.

Garraioa

Joko lekutik gertu Transit furgoneta batentzako lekua aurreikusi.

Kontaktuak

Ander 627228934

Corine 0033 0682533927

rougeelea@yahoo.fr

